

## EUSKALDUN FEDEA ANTZOKI EDO TEATRO-ZARREAN, JUAN INAZIO URANGA-K IDATZIA

Euskal lagundi jostiruditar bikaiñ onek, urterik utsegiñ gabe, Done, edo Santo Tomas arratsalde eta gabean, egin du aurten ere karrika nagusiko antzoki sarrean, ager aldi eder bat, gai onezko jostirudi euskeraz izkribatutako gaiñ gañekuakiñ.

¿Nor ez da egoten, euskarazko odol tanto bat dubenik, egun ori iristeko zalantzan, gure izkuntza maitagarriz mintzatzen aditzeagatik? Eta ¿nor egongo da dardarizorik senti gabe euskaldunentzat dan egunik zoragarriyenian? Arratsaldeko jolas aldiya-ren ekintza izan zan, Donostiyako beartsudi eta Done Antonio Abad-en gaiñodien mesederako, zeñagatik, aipatu deran lagundi gaiñ-gañeko oni, opa diyozkattan chalo ugariyak, dakiyelako, beretan iñor aberatsa ez izanik, berak baño beartsuaguen malkuak chukatzen, beren gaiñ arki dituzten gai urri eta nekosuakiñ.

Gau ontan, urtero bezela ikusi ditut antzoki sarreko aulki ederretan eserita Donostiar euskal zale goi goyeneko Antonio Minondo jaunna, Donostiyako alkate orde, aldamenean zituelarik Santo Domingo eta Ayestaran jaunak, era beste erri batzarreko lagun batzuek; gañera, jakiña dan bezela ikusi nituben gelacho bateko aulkiyetan eseririk, Euskal-itz-jostaldien batzarreko euskaldun bikain Toribio Alzaga, Joakiñ Muñoz Baroja jaunak, eta nere adiskide jator, euskal izkuntza eta oitura zarren agertzalle biyotz aundidun Adrian Loyarte jaunna; au bai dala egiyazki, Euskal erri eta Donostiyaren naidar bene benetakua. An ikusi nituen ere, Manuel Lizariturry, Jabier Peña, Luis Ayestaran eta Karlos Echeberria jaunak, eta beste asko izenez gogoratzen etzaizkidanak; alez betetako matz landarea ziruriyen antzoki sarrak gau ortan jendearen mordozkatzez.

An arki ziranen izenak aipatzez utzirik, agindu dezayoan eskuan daukantan altzaidu muturrari, jarrai dezayola ekin diyon lanari, kontu emanaz zer nolako jolas aldiyak izan ziran, antzoki sarrean, asiyera emanik arratsaldekuakin.

Seiki arrabetariyak *Pudente* otseztizketaren, oskintza oskaitu ondoren *Legorreko arrantzaliak* egin zuben lenengo agerkeria; eta chit ondo gaipeturik aritu ziran Pepe Artola, Agustin arrantzaliaren irudian; Felipe Kasal, Iñašio-renian; Antonio Irastorza, Ramon Gelbenzu, Pablo Kasal, eta beste bat; gañera, egokiro osatu zituzten jostirudi ontan eman zitzaizkaten gayak, Rosario eta Josepacho Artola-k. Gero auskestu zuben Jose Artola-k *Prašku* bakarrizketa gai sortzez beria dana, eragiñ arazirik jendiari far asko, eta jasorik egilliak belarriyeta, chalo soñu ugariyak.

Irugarren chandan aurkestu zan gaya izan zan *Maitasunagatik*, egintza bakarreko «abalizketa» eta gai neurtzetan mallarik goyeneko muga irichi zuben Josepacho Artola-k, eche aberatseko neskame baten irudia chit egokiro antzapetu zubelako, izanik bigarren laukiko lenbiziko irudian chalo aundipean deitua iruditegira; goi goyeneko mallara irichirik aritu ziran gañera. Maria Kasal bere ingi edo damacho aberaski Domitilaren irudian; ala nola, geruago ta yayuago dan Rosario Artola, andre Dolores amarenian. Eta, ¿zer esango det gizasemiagatik? Artola, Kasal, Iraztorza, Gelbenzu, Andonegi eta Jose Marino Arrieta-k apaindu ziratela nere egintza gai guchiko eta ezereza, osoro chalo aundipean. Lagun zar abei ezkerak, bestela..... putzura.

Arratseko jolas aldiyan Jose Ganboa-ren jostirudi egoki egintako Mariya, zan lenengo iruditegiratu zan egintza; emen beren gayak neurtu zituztenak chit malla goitsuan aritu ziran, batez ere Ganboa. ¿Zer ederki eta maisutasun aundiz osatu zituben egintzaren gai neurtza guztiyak! Oraindik iruditzen zait chalokaden burrundara datorrikidala belarriyeta. ¿Oik dituk oik..... pulamentuk.

*Ero algara*, bakarrizketa. Au ere da errenkada aben egilliarena; chit guchi baliyo dubena da berez, bañan Federiko Larman-en eskuetan loi beltz zikiña ere, urre garbi garbira biurtzen dana da. ¿Zer goikiro apaindu zuben nere baztanga zuloz itzuzitutako egintza šatarra! Atzoko eskuzko, jendiaren chalo ugariyak aski ez baditu, jaso bitza nere biyotzak ezkeintzen dizkan naitasunezkuak. Onen ondoren agertu zan iruditegira, Jose Artola Pello kirten izentzat daramakiyen bakarrizketaekin. ¿Zer esango der orregatik; len esana dagon bañon geyago?

Zer asmatuko der, ez baldin bada nere burura sortzen ori goitalchazteko itzik? ¡Altzaidu muturra!..... aski dezu far aundiyak eragiñ arazi zirubela esatia, eta chalo ugariyak izan zirala berarentzat.

Kantaritalde Donostiarra bere sayo ederrian, chalo upariyen jabe egiñ zan, Usandixaga eta Ariñ-en egintzak aboskaitu zitubenan, Sekundino Esnaola jauna-ren mendeko zuzen ardatz egokipean.

Azkeneko jostirudi gai neurketa egin zan Abelino Barriola-ren *Aldiz-Aldiz* izentzat daramakiyenakiñ. Uste nuben, betiko chalocean egon bear nubela. Guztiz ondo egin zuten sayo guztiya, Artola, Larmari, Irastorza, Kasal eta Gelbenzu-k, izanik deitu, eta iruditegira ager araziya, egintza fartsu onen egillia.

Bertsolariyak eman ziyoten bi jolas aldiyai bukaera.

---